

ETORKIZUNeko IRUÑEA ERAIKITZEKO 130 NEURRI
130 MEDIDAS PARA CONSTRUIR LA IRUÑEA DEL MAÑANA

130

neurri
medidas

EUSKARA

ehbildu

 **IRUÑEA**
¡IMPARABLE!

130

Neurri etorkizuneko Iruñea eraikitzeke

Medidas para construir la Iruñea del mañana

Iruñea justu eta solidarioa | 01

Guztientzako lan egiten dugu, okerren pasa dutenen eta pasatzen ari diren pertsonei arreta berezia eskainiz.

ETXEBIZITZA

1. Alokairuzko 300 etxebizitza publikoren promozioa Sanduzelai, Etxabakoitz, Txantrea, Arrosadia eta Alde Zaharra auzoetan, etxebizitzara sarbidea hobetzeko eta alokairuaren prezioari aurre egiteko, sortu daitezkeen burbuilak ekidinez.
2. Hauetatik 150 Gazteria programaren barruan kokatuko dira, auzoetako gazteen emantzipaziorako etxebizitza komunitarioak, promozio publikoaren edota kudeaketa kooperatiboaren bitartez garatuko direnak.
3. Zentro Historikoaren Etxebizitza Plana 2019/21, zeinek 19 eraikinen zaharberritze integrala jasotzen duen, Descalzos kaleko 33-35 zenbakiak eta Joaquín Jarauta 58 eta Hilarion Eslava, 26. Bizilagunei ostatu ematera bideratuko dira. Halaber, Jarauta 9-21 eta 9-13 zenbakiko eraikinen eraberritzerako proiektua idaztea aurreikusten da.
4. 170 udal etxebizitzak eraberriko plana amaitu 2019ko abendurako, larrialdi egoeran diren familientzat.
5. Aloka programa bultzatu, egun hutsik dauden etxebizitza pribatuak Alokairu Poltsa Publikoan jartzeko, Etxebizitza Bulegoaren bitartez.
6. Etxebizitza hutsen zentso bat osatu, Herriarren

Behatokiko panel sozialean txertatuko dena. .

7. Bankuek eta higiezin agentziek dituzten etxebizitza hutsen gaineko zerga aplikatu, 2018an onartutako zerga araudiak zehazten dituen terminoetan.
8. Etxebizitza Kolaboratiboen Udal Araudia garatu, lursail eta eraikin publikoen lagatzeak erregulatuko dituen, 2019an izandako esperientziari jarraiki, erabilera lagapena kooperatibei luzatzeko.
9. Iruñea Etxekaleratzerik Gabeko Hiria filosofiarekiko konpromisoa mantendu, azken lau urteotan garatutako ildoari jarraikotasuna emanaz.

EKINTZA SOZIALA

10. Pobreziaren eta bazterkeriaren aurkako eta etxebizitza eta lanpostu duinaren eta ongizatearen aldeko plana. Gizarte eragileekin eta sindikatuarekin batera lan egin, erantzun eraginkorrak lortzeko. Planak aurrekontu nahikoa izango duela bermatuko da, jasotako ekintza eta helburuak bete ahal izateko.
11. Izaera sozialeko diru laguntzak %20an igo, ahalegin berezia eginez hiru programetan: larrialdi soziala, jantoki sozialak eta alokairu soziala.
12. Herriarren Behatokiko Panel soziala garatu, non hiriarren gizarte egoerari buruzko ezagupena izan eta



jarraipena egiteko oinarritzko datuak agertuko diren: bazterkeria soziala, pobrezia, etxebizitzara sarbidea eta eskolaratze arazoak.

13. Kooperatiba bidez 72 etxebizitza edo tutoretzapeko apartamentu garatu bizilagunentzat, Sanduzelaiko Gridilla Etxeak zirenetan.

14. Aniztasun Funtzionalaren Udal Batzordea garatu, neurri integratzaile eta transbertsalak lortzeko. Udal Araudia egin autonomia pertsonala eta irisgarritasun unibertsala ahalbidetzeko.

15. Dependentsiaren Inguruko Udal Plana sortu, etxez-etxe laguntza zerbitzuarekin batera, egungo diru

laguntzekin batera eta beste erakunde batzuetatik iristen diren laguntzekin batera, bermatuko duena gaur egun dependentsia mailaren bat duten ia 5000 pertsonen %100a, artatua izango dela.

16. Etxez-etxe laguntza zerbitzua erregulatzeko udal araudia garatu.

17. Iruñeko udaleko aurrekontuaren %1a kooperaziora bideratu, kooperazio planaren zehaztapenei jarraiki.

Konprometituta eta elkarbizitzan oinarrituta dagoen hiria | 02

Pluraltasuna eta aniztasuna, identitateak eta tradizioak, errespetatzen dituen hiria ari gara eraikitzen.

GARDENTASUNA ETA KODE ETIKOA

18. Iruñeko udaletxerako eta erakundearen sektore publikorako Gardentasun Ordenantza bat onartu, Gardentasun eta Gobernu Irekirako maiatzaren 7ko 5/2018 Foru Legea garatuko duena, ondorengo

printzipioan oinarrituta: "publikoa den guztia publikoa da".

19. Gobernu Zintzo baterako Kode Etikoa onartu, zintzotasunarekiko konpromiso irmoa jasoko duena eta zinegotzi guztientzat, izendapen askeko langileentzat,

zuzendarientzat aplikagarria izango dena, bai Iruñeko Udaletxean baita erakundaren sektore publikoan.

20. Ustelkeriaren prebentzioarako *compliance* programa integrala garatu.

HERRITARREN SEGURTASUNA

21. Herritarren Segurtasunerako Plan Zuzendaria 2021-2026, gertuko udaltzaingo eredu estrategikoa sendotuko duena, brigaren %60a prebentzioara, gertukotasunera, trafiko segurtasunera eta polizia komunitarioa bideratuz.

22. Polizia komunitarioaren taldea hiriko auzo guztietara zabaldu, pixkanaka.

23. Bizikleta bidez mugitzen diren Udaltzainen taldea egonkortu, funtzio zehatzekin eta udal araudietan jasotakoaren araberrako zerbitzua emanaz, Takonera eta Vuelta del Castillo eta Argako Ibaiertzeko Parkea eremuetan.

24. Herritarren segurtasunerako alorraren barruan, mugikortasunerako eta herritarren babeserako taldea

sortu, mugikortasun gaietara, udal araudien jarraipena egitera eta herritarren babeserako laguntza eskaintzera bideratuko direnak.

EUSKARA

25. Euskara zerbitzuaren udal aurrekontuak %50ean handitu.

26. Egungo langileriaren egoeraren diagnosi bat egin zirkuitu administratibo elebidunak garatzeko, postu teknikoetan euskarazko profilak dituzten plazak sortuz.

27. Euskarareb Udal Araudia betetzeko plan bat osatu, herritarrei arreta Iruñeko bi hizkuntza propioetan emago zaiela bermatzeko, horretarako herritarren arretarako zerbitzuan euskarazko plazak sortuz.

28. Iruñeko paisaia linguistikoa osatzen duten elementu guztiak elebidunez errotulaturata egongo dirla bermatzea progresiboki, urteroko plan bat oinarri hartuta, kronograma eta aurrekontu zehatzak izango dituen eta, halaber, kale izendegi elebiduna onartu.

29. Mintzaia proiektua: Euskara Iruñeko hizkuntza historiko modura ikusarazteko eta hizkuntza literario modura. Bi fasetan garatuko da proiektua:

- 1. fasea: euskararen hito historikoei lotuta. Hito bakoitza toki edo pertsonaia bateri lotuta dago.
- 2. fasea: euskara literatura garaikidean, kalerik kale: alde zaharreko kale bakoitza autore batekin lotuz.

ANIZTASUNA

30. Kultura Aniztasunaren eta Elkarbizitzaren Udal Plan Estrategikoa idatzi eta Aniztasuna Kulturala kudeatzeko zerbitzua garatu.

31. "Iruñea Harrera Hiria" bulegoa sortu, kultura aniztasunari loturiko politikak koordinatzeko; harreraren, elkarbizitzaren eta sentsibilizazioaren ikuspegietatik.

32. "Migrazioaren eta Kultura Aniztasunaren Etxea" bultzatu, topagune moduera eta hirian dauden jatorri desberdinetako komunitateen arteko interakzioa bultzatzeko, errespetutik eta elkarbizitzatik abiatuta.

33. Ijito Herria eta bere kultura Iruñeko zati garrantzitsua dira, eta horrela errekonozimendurako eta partehartzerako neurriak hartuko dira, kultura aniztasunarekin loturik. Gainera, gizarte politika inklusiboak bultzatuko ditugu berdintasunean eta



bazterkeriarik gabe bizi den hiri eredu bat sustatzeko.

BESTELAKO PROIEKTUAK

34. Parte hartze araudi berrian ezarritako xehetasunei jarraiki herri kontsulta bat bultzatu Erorien Monumentuaren eta bere inguruaren gaineko Lehiaketako irabazlea hautatzeko 2020 urtean. Aurretik zazpi proposamenetatik hirura igarotzeko prozesu bat eginda, udal taldeekin adostua izanen dena.

35. Elkarbizitzaren eta Bakearen Batzorde Berezia abiatzea. Memoriaren Eguna definitzea, hiri honetan arrazoi politikoak medio izan diren biktima guzti-

guztien omenez.

36. Udal bulego bat sortu Irisgarritasun Unibertsalaren Plana koordinatu eta martxan jartzeko, udal alor guztiak barne bilduko dituen baita desgaitasun eremuan diharduten erakundeekin elkarlanean ere.

Iruñea berdea, jasangarria eta irekia | 03

Pertsonen ongizatea lehenesten duen Iruñea, ingurugiroa errespetatuz, jasangarria dena eta hirian bizi eta hirira datozenak zaintzen dituen.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

37. Iruñerriko Mugikortasun Jasangarrirako Plan Integralerako dokumentuak garatzea 2019/2021 urteetan: bizikleta plana, oinezkoentzako ibilbideak, mugikortasun bertikala eta garraio publikoaren sare berritua, dagozkien gainontzeko erakunde eta udaletxeekin elkarlanean.

38. Bosquecillo kalearen eraldaketa, behin peatonalizatuta, urbanismo taktitoaren bidez eta behin-betiko urbanismoaren bidez, eremua bulebar batean bilakatuz. Alde Zaharra eta honen ekialdeko auzoetara oinezko ibilbideak hobetuko dituen eta Takonera eta Bosquecillo konektatuko dituen, berriz ere batuta egongo den hiri parke bat izateko.

39. Bizigune proiektuaren garapena, Bosquecillo eremuan, bizikletaren inguruko erreferentzia, ekintza eta informazio gune bat sortzeko, tokikoentzat eta turistentzat. Egungo kafetegia elementu nagusitzat hartuta, bizikletaren Zentro Soziala, Bizi Eskola udal zerbitzuaren egoitza zentrala eta bizikleten autoerrepaziorako tailerra sortuko dira. Baita turistentzat informazio gune bat ere, bertan kokatuko delako erreferentzia puntua hiria zeharkatzen duen Euro velo ibilbidearentzat (europako txirrindula ibilbideen sarea) eta Donejakue bidearentzat.

40. Labrit eremuan pasarela berri bat eraikitzeko proiektu lehiaketa eta ejekuzioa, jarraipena emango

diona hiriko harresietako ibilbideari Guadalupeko bastioiaren eta Labriteko gotorlekuaren artean. Hala, aurreko pasarela txarra eta usteldua ordezkatuz.

41. Manuel de Falla ardatz jasangarriaren erredakzioa eta ejekuzioa, Arrosadiako auzoa iparretik hegora zeharkatuko duena, Felisa Munarriz kaletik hasi, Manuel de Falla eta Rio Irati kaleak igaro eta Pamplonesaren plazara iritsi arte.

42. Bizikleta Elektrikoaren Sare Publikoa martxan jarri, hirian zehar barreiatutako 20 baserekin eta Iruñerria zabaltzeko aukerarekin, 2019 eta 2020 artean.

43. Udal ibilgailuetan barne errekuntzako motorrak, motor elektrikoengatik ordezkatzen jarraitu modu proresiboan.

44. Zonalde batzuetan, ibilgailu elektrikoak eta baimendutako ibilgailu partekatuak, mugatutako aparkalekueetatik bereiztuta utzi, mugikortasun jasangarriko ibilgailuak bultzatzeko.

INGURUGIROA ETA BIODIBERTSITATEA: AZPIEGITURA BERDEAK ETA URDINAK

45. Arantzadiko Ekoparkea martxan jarri, ekonomia zirkularrekiko ardatzen baitan, eta Txantrea-Maddalenako parke jasangarria garatu, 100.000 metro karratukoa eta partehartze prozesu baten bidez garatua, zein praktika onen adibidetzat hartu den.

46. Planeta Basoa diseinatu eta garatu, Lezkairuko egungo Aitzindarien Parkeko biribilgune nagusian, gure Lurra planetaren defentsa eta ingurugiroaren babesa aldarrikatzeko karga sinboliko modura.

47. UPNArekin batera Sadar kalekoaren inguruko unibertsitate eremuan Jardin Botaniko bat diseinatu eta garatu, erabilera akademikoak eta aisialdikoak izango dituen.

48. Takonera parkeko Vistabella eremuan, haurrentzako jolas eremuaren bigarren eta hirugarren faseak garatu. Izaera familiarra izango duen parkea, kafetegi espazio batekin eta hitzaldietarako, jolaserako eta tailerretarako gela batekin.

49. Auzo guztietan, Hiriaren Garapen Jasangarri eta Integraturako Estrategia Plana onartu, Arrosadian EDUSIrekin eta Sanduzelai auzoan Erdigunerekin izan diren esperientzietatik abiatuz.

50. Ibaiei Plana garatu, martxan diren erredakzio lanetatik abiatuz, ibaien planifikazio eredu berri bat zehazteko helburuarekin, eta ondorengo helburuak lortzera zuzendurik: ibaien naturalizazioa, ibaiertzeetan biodibertsitate handiagoa eta uholdeei loturiko fenomenoak aurreikusiz.

HONDAKINEN KUDEAKETA

51. Udal Araudi bat onartu plastikoaren erabilera mugatu eta gutxituko duena, erabilera bakarreko plastikoaren produkzioa eta erabilera progresiboki desagertzeko helburuarekin. Zentzu horretan, abiapuntu funtsezkoa da elikadura, ostalaritza eta komertzioaren sektoreekin elkarlana, erabilera bakarreko plastikoak jasangarriagoak diren ereduengatik ordezkatu ditzaten.

52. Edalontzi berrerabilgarriaren esperientzia sendotu, bere erabilera denetariko ekitaldietara zabalduz: jaiak, kirolak, ekintza soziala edo kulturalak. Esperientzia positiboak aprobetxatuz Sanfermin jaiak, Labrit, Zezen Plaza eta orain Sadar bezalakoak.

ENERGIA

53. Bizilagun komunitateei zuzenduriko diru laguntzen bitartez, eguzki energiaren autoprodukzioa sustatu; eraikinetan eguzki plakak jarritz hiritaren energia kostea gutxitzeko eta enpresa handiekiko menpekotasuna txikitzeko.

54. Udal Operadore Energetikoaren tramiteak bukatu, 2020 urtean energia berdearen komertzializazio





publikoarekin hasi ahal izateko; eta horrela, pobrezia energetikoari aurre egiteko, udal kontsumoan energia berdea soilik erabiltzeko eta bultzatzen ari garen autoprodukzioaren soberakinak kudeatzeko.

55. Iratxe etorbideko Udaltzaingoaren eraikin proiektua, energetikoki inteligentea izango den eraikin gisa garatu. Eguzki plakak, metatzen bateriak, ibilgailu elektrikoentzat konexioak eta eraikinaren eta ibilgailuen arteko fluxu energetiko inteligentea.

56. Pobrezia Energetikoaren aurkako Plan Integrala garatu, gaurkotutako diagnostiko batetik abiatuta, modu argian identifikatuko dituen zaurgarria den kontsumitzailearen figura eta gainera neurri prebentibo eta paliatiboak txertatuko dituen. Udal Operadore Energetikoa zeregin honetara bideratu.

57. Trantsizio Energetikorako Hiri Plan Estrategikoa 2019/2020 garatu, eredu energetiko sozialago, justuago eta jasangarriago batera eramango gaituena. Operadore Energetikoaren baitako Udal Plan Energetiko bat ere barne bilduko du eta eraikuntza publikoan ia kontsumo energetikorik gabeko edo *Passiv* irizpideak aplikatzeko konpromisoa.

58. Energiaren Mahaia osatu, gai honetan inplikaturako alorrak koordinatzeko.

BESTELAKO PROIEKTUAK

59. Santo Domingoko Baratzetan Polikiroldegi bat eta bizilagunentzako aparkamentu bat egiteko proiektua bultzatu. Plaza publiko bikoitza, Parmako bastioiaren konponketa eta irisgarritasun arazoei erantzuna emateko bi igogailu aurreikusten ditu proiektuak.

60. AHTaren Udalez Gaingiko Plan Sectoriala birplanteatzeko eskatu eta Etxabakoitz auzoaren etorkizuna trenaren etorkizunetik askatzea.

61. Erripagainaren etorkizuna Udalez Gaingiko Plan Sektorial baten berrikusketarekin aztertu eta azpiegitura publikoen aurreikuspena gaurkotzearen eta hobetzearen alde egin. Lau udalerritan banatutako zatiketa administratiboa arrazionalitzatu.

62. Animalien Ongizate plana garatu, hirian animaliekin dugun erlazioa ikuspegi berri batetik aztertu, eta usoen kontrolerako usotegi ekologikoak bultzatu edota katuen kontrolerako Arantzadin babesleku bat eraiki.

Iruñea parekide eta parte hartzailea | 04

Genero zein aukera sexualengatik diskriminatuko ez duen Iruñea, bere aniztasunaz harro dagoena eta bertako ehun sozialaren garapena bultzatuko duena.

HAURTZAROA ETA GAZTERIA

63. Haurtzaro eta gazteriaren laguntzarako sarea indartu, ekipo prebentiboak auzo gehiagotara zabalduz: Zabalgunea, Donibane, Ermitagaña, Iturrama eta Lezkairu.

64. Haurtzaroaren Kontseilua bultzatu. Haurtzaro Planaren ildo estrategikoak garatu, txikienen ideiak entzun eta kontutan izateko helburuz eta hiriaren eraikuntzan txikienen partehartzea bultzatzeko.

65. Haurren jolaserako "playground" espazioak sortu, jolas askea eta sormenezkoa bultzatuko dutenak, elementu naturalen inguruan. Takoneran izango 2019an lehen esperientzia.

66. Gazteriaren inguruko Lan-Mahai Sektorialak sortu, bereziki, gazteentzako aisialdi espazioei irtenbideak emateko.

67. Autogestionatutako eta aisialdirako gune alternatibo moduan ulertutako gazteriarentzako lokalen sarea sortu Iruñeako auzoetan.

68. Gazteen Emantzipaziorako Bulegoa sortu, enpleguan, formakuntzan eta etxebizitzan laguntzeko helburuarekin.

HIRUGARREN ADINA

69. Adineko Pertsonentzat Plan Zuzendaria garatu, helburutzat adineko pertsonen aniztasuna eta inklusioa sustatuko duen kultura indartzea dituen eta zahartzaro aktibo batekin lotuta dauden behar eta lehentasunei modu eraginkorrean erantzutea.

70. Hirugarren Adinerako Autogestionatutako Tuteratzapeko apartamentu proiektuetara zuzendura dauden lursailen lagatzea, etxebizitza alternatibo modura, zahartzaro aktiboan eta ingurugiro komunitario batean oinarrituta daudenak, zeinetan zaintzaren, elkartasunaren eta ekitatearen balioak indartzen diren.

71. Hiriko auzoetara Adineko Pertsonaren Aldeko Paktua dinamika zabaltzea. erakundeen eta hirugarren adineko

eragileen artean elkarlanerako markoak sortuz.

72. Auzo guztietan adineko pertsonen ariketa fisikoa egiteko parkeak egokitu eta programa bereziak garatu zahartzaro aktibo eta osasuntsu baten alde, egokitutako ekintzekin.

BERDINTASUNA

73. Iruñeko Udal Aurrekontuaren %1a berdintasuna bultzatzera zuzendu, politika afirmatibo eta transbertsalekin.

74. III. Berdintasun Plana garatu: Udal Berdintasun Ordenantza garatzeko baliabide humanoak eta partida ekonomiko nahikoarekin.

- Edozein plan edo arauarekin batera, genero ikuspegitik landutako txostena aurkeztu.
- Eraso sexisten aurrean prebentzioarako,



- jokabiderako eta erantzunerako gida bat garatu.
- Emakumeen kontrako indarkeri kasuetarako arreta eta prebentzio baliabideak hobetu eta zabaltu, indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako udal etxebizitza eskaintza handituz.
- Ahalduntzerako eskola iraunkorra sortu.

75. Kontziliazio eta Zaintzarako Udal Plana sustatu, lanen banaketa parekiderako ereduak bultzatuz eta zaintzari balioa aitortuz, gure gizartearen garapenerako funtsezko baldintza gisara.

76. Mugimendu feministaren eta emakumeen asoziazionismoaren sustapen eta laguntzarako plana garatu. Mugimendu feministarekin elkarlan aktiborako espazioak handitu, erreferentzia gisara Sanferminak

Berdintasunean dinamina izanik.

BESTELAKO PROIEKTUAK

77. Salesianasen bigarren fasea: Eraikina irisgarritasun irizpideetara egokitu ostean, Auzo Unitatea txertatu ostean eta ekitaldi aretoa berritu ostean, bigarren fasea garatu behar da eraikuna espazio komunitario eta kultural gisara indartzeko.

78. Lezkairun gazteentzako parke berri bat sustatu, Trinitarios eremuko pupmtrack parkearen gisara eta parkour-calistenia ereduko guneak txertatu Sanduzelai, Txantrea eta Mendillorriko parke berrietan.

Ekonomikoki osasuntsua den eta publikoaren alde egiten duen hiria | 05

Zerbitzu publikoen kalitatea babesten dutu eta sinisten dugu ardura eta guztion ongizatearen aldeko konpromisoa direla guztion dirua kudeatzeko oinarritzko ardatzak.

KONTRATAZIO PUBLIKOA

79. Izaera estrategikoa izango duen kontratazio publikoaren alde egin, inklusio soziala, kalitatezko enpleguaren sorkuntza, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta ingurugiroaren jasangarritasunera bideratuta.

80. Aholkularitza Juridikoaren barruan, Iruñeko Udalarentzat eta Sektore Publikoarentzat Kontratazio Unitate Zentrala garatu, kontratazio publikoan adituak diren zuzendaritza lizenziatuekin, kontratazio publikoaren kudeaketa juridikoa koordinatuko dutenak eta gaiari merezitako kohesioa eta homogeneitatea emango diotenak.

81. Trebatu programaren bigarren fasea: kontratazio publikoan trebatzeko tailerrak eskaini ekintzaileentzat, autonomoentzat, enpresa txikientzat, ekonomia sozialeko enpresentzat eta enplegu eta inserzio zentro berezientzat.

EKONOMIA

82. Geltoki proiektuaren bigarren fasea, Geltoki 2.0: ekonomia solidarioaren garapen eta indartze planaren sustapena.



- Formakuntza eta dibulgazio programak ekonomia sozial eta solidarioko enpresa eta kooperatibak sortzeko.
- Jarduera ekonomikoko indize baxuenak eta langabetze tasa handienak dituzten auzoak biziberritzeko plana garatu, ekonomia solidarioan oinarritutako formulak lehenetsiz.

83. Ekintzaileentzat 2019-2023 plana garatu: ekintzailetza eta enpresa proiektu berriak babestu eta indartzeko plana, urteroko finantziazio ildo berria txertatuko duena.

84. Azalera handiko saltokien irekiera erregulatzeko Udal Ordenantza: Azalera handiko saltokien irekieta mugatuko duen interbentzio eta erregulazio programa.

85. Kontsumo Arduratsuaren Bulegoa: Nafarroako Gobernarekin elkarlanean Kontsumo Arduratsuaren bulegoa ireki. Udal modura tokiko materialen eta km0 produktuen erosketak eta kontsumoa bultzatu.

KOMERTZIOA ETA TURISMOA

86. Komertzio historikoen edo ehunkako denden ordenantza bultzatu hauen babeserako.

87. Lokal komertzioaren eraberritzeko laguntza plana eta auzoetako komertzioak berreskuratzeko laguntza plana garatu.

88. Formakuntza eskola bat sortu komertzio txikietako

profesionalei aholkularitzat eta formazioa eskaintzeko eta hiriko auzo guztietan komertzio elkarten sarea garatu.

89. Alde Zaharrean komertzioaren, ostalaritzaren eta bizilagunen arteko elkarbizitza hobetzeko neurri plana bultzatu. Pisu turistikoaren gaineko erregulazioa onartu eta ebaluazio eta jarraipen unitate bat martxan jarri, bereziki, eskaintza ilegalaren kontrola egiteko.

90. Lan-Mahai Sektorialak sortu, eragile turistikoekin, ostalariekin, komertzioekin, kirol jardueren eta jardura kulturalaren sustatzaileekin eta bizilagun elkarteekin.

91. Sanferminetako irudiari buruzko plana, jaien irudia errespetuaren, berdintasunaren, jasangarritasunaren eta tokiko tradizioen baloreei lotzeko.

92. Hirian gertatzen diren ekitaldietarako sarreren erosketak eta komertzializazioa sustatu Turismo Bulegoaren bitartez.

BESTELAKO PROIEKTUAK

93. Sarasate Pasealekuaren proiektua idatzi eta garatzea, aurreproiektuen fasetik ateratzen denaren arabera. Alde Zaharra eta Zabalgunearen arteko zauria sendatu eta funtzionamendu arazoak dituen espazio hau birpentsatu: atseginagoa, funtzionalagoa eta biziagoa izan dadin.

Kultura eta etorkizuna dituen Iruñea | 06

Sorkuntza eta inizatiba kulturean erreferentzia den hiria bultzatzen dugu. Jendean konfiantza duena eta berau laguntzen duena. Etorkizuna planifikatu eta protagonistak direnengan inbertituko duena.

BERRIKUNTZA

94. Auzo guztietan erabilera publikoko Wi-Fi guneak sortu, zerbitzu publiko kontzentrazio handiena dagoen eremuan, WIFI4EU ekimenari jarraikiz.

95. Informatika trebakuntza kurtsoak eskaini kolektibo zaurgarriari eta lana lortzeko zailtasunak dituztenei edota, bestetik gabe, alfabetatze digitalaren beharra duten taldeei.

96. Kode irekia eta software librearekin jardun, teknikoki posible denean eta ekonomikoki bideragarria denean (software librearen ez du esan nahi doakoa denik).

ARTXIBOA

97. Udal artxibora gidatutako bisita programa bat abiatu:

- Erakunde eta eskolentzat.
- Herrirarrentzat orohar, Udaletxera egiten diren



bisiten zentzu berdinean.

- Artxibo historikoaren eraikinaren eraberritzea eta ganbera korazatua zeharberritu, dokumentuen segurtasuna bermatzeko.

98. Pablo Sarasateren Museo Etxea. Sarasateren Museo Etxea sortu, Sarasateren museoko erakusketa aprobetxatuz eta biolinistaren altzairu, tresneria eta liburutegiari balioa emanez, gaur egun, udal biltokietan daudenak.

99. Ondare immateriala: Ondare immateriala biltzeko Plan Estrategikoa onartu, eta ondare horren bilketarako eta tratamenturako ildoak garatu, baita webgune batean herritarrentzat eskuragarri izateko modua ere.

HAUR ESKOLAK

100. Hezkuntza Zentro Integrala sortu (0-3 urteak) Lezkairuko auzoan, jornada osoko haur eskola bat, jornada erdikoa eta familia espazio bat aurreikusten dituen.

101. Iruñeko ekialdeko eremuan euskarazko eskaintza linguistikoa handitu.

102. Haur eskola sare publikoaren barruan, 2020ko urtarrilean Arrotxapeako haur eskolan Familia Eskola zerbitzua martxan jarri.

103. Iruñeko 0-3 zerbitzuaren erabiltzaileentzat arreta, formazio eta informazio zentro bat ireki.

104. "Hemengoak" (elikadura ekologikoak eta hurbiltasuna) menuaren sendotzea eta 2019/2020 kurtsoan ekimena haur eskola sare osora zabaltzea.

105. Diru laguntza ildoak sortu, haur eskoletan errenta baxuenentzako doakotasuna lortzeko.

106. Hezkuntza komunitatearen parte hartzea sustatu haur eskola sarean, guraso elkarteentzat laguntzak sustatuz 0-3 zikloan.



HEZKUNTZA ETA ESKOLA PUBLIKOA

107. Eskola eta guraso elkarteentzat laguntzak ildoak %20ean igo.

108. Eskoletan obrak: 600.000 euro urteko lehen hezkuntzako eskoletan mantentze lanak egiteko eta eskola bakoitzeko 6.000 euro eskoletako obra txikietarako.

109. Patioen eta jolasguneen eraberritzea, gunek lasaia sortzeko helbururarekin.

KULTURA

Gertuko kultura

110. Civivox sarearen eta auzoetako sare asoziatiboaren artean elkarlanean garatutako programazioa sortzeko plana bultzatu.

111. Material bibliografikoa erosteko eta liburutegi sareko ekintzetarako laguntzak %20 handitu eta liburutegi sarean mantentze lanetarako urtero 100.000 bideratu.

112. Arrosadiako auzoan liburutegi berri bat ireki.

113. "Kultura Biziko Espazioak" araudia garatu, zuzeneko kontzertu eta bestelako ikuskizunetarako areto txikiak babesteko.

114. Arantzadiko eremuan kontzertuetarako espazio autogestionatua garatu, frontoian estalki bat ezarri ostean.

Kultura garaikidea

115. Zitadelako Hiriarte espazioaren Plan Zuzendaria garatu. Urteroko 300.000 euroko inbertsioa bermatu.

116. Hiriko artisten sormen prozesuei bultzada eman, sormenerako laguntzak %30 handituz.

117. Formazio planak eta artista lokalen lanen produkzio, distribuzio eta erakusketarako laguntzak.

118. Kultura garaikideari loturiko besten zentro eta eremu batzuekin kolaborazio eta sinergiak bultzatu.

Kultura herrikoia eta jaiak

119. Jaien kudeaketarako zerbitzu bat sortu.

120. Auzoetako jai egutegia garatzeko hitzarmenak zabaldu (ihauteriak, auzo eguna, olentzero...).

121. Auzoetako jaiak garatzeko behar diren azpiegituretarako partidak biderkatu eta jaien batzordeei bideratutako diru laguntzak %20an handitu.

122. Talde artistiko eta hitzarmenen katalogoa gaurkotu eta diru laguntzak %20 handitu.

123. Sanferminetan peñen ekintzetara bideratutako diru laguntzak %20 handitu.

124. Sanferminetan kolektiboentzat lagatzen diren espazioak egonkurtu: partida eta azpiegiturak handitu; espazioa egokitu argia, ura eta saneamentuei dagokionez; jai espazioetarako seinaletika berezia sortu; programa ofizialean ekintza nabarmenenak txertatu; diru laguntza ildo berria garatu espazio hauetako proramazioa kudeatzeko, aniztasuna eta adin guztietarako eskaintza kriterioeri jarraituz.

BESTELAKO PROIEKTUAK

125. Nazioarteko Pilotaren Museoaren proiektua garatu, suhiltzaileen kuartela zenaren alboan, kirol honetako nazioarteko erreferentzia espazio gisara eta binomio bat eraikiz Labrit pilotalekuarekin eta San Bartolomeko gotorlekuan kokatutako Harresien Interpretazioarako zentruaren artean.

126. Arantzadiko parkean kokatzen den Agustinas konbentua zenaren zaharberritzea, ikusentzunezko produkzio eta postprodukzioarako espazio modura, erreferente izango dena nafarroako ikusentzunezko

industrian eta Montxo Armendari fundazioa eta zuzendari nafararren lanak barne bildu ahalko lituzkeena.

127. Bigarren Zabalguneako Maristas eraikinean civivox bat garatzea 2019 eta 2021 urteen artean, behin azpiegitura publikoa garatzeko gunea lortuta. Salesianos operazioan udalari egindako lagapenentatik jasotako 3 milioi euroak erabiliko dira finantzaketarako.

128. Arrosadiako Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren barruan, eta behin Paderborn-Victor Pradera eskola Lezkairu auzora mugitzen denean, honen eraikinean Arrosadia eta Azpilagainako civivoxa garatzea.

129. Baskunes proiektuaren garapena, Hiriko Interpretazio Zentro modura, non 2000 urtetik gorako historia eta arkeologia, etnografia eta artea bezalako alorrak txertatuko diren.

130. Arte kale proiektua, hiri osoan zehar lokalizatu eta diseinatuko den mural eta arte urbano plana, artisten esku utziko duena espazioa artearen bidez eta mikrourbanismo lanen bidez berreskuratzeko lana ●

irunea.ehbildu.eus